

## **2015eko MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEEN AURREAN SINDIKALGINTZAREN ETA EREMU SOZIALAREN PROPOSAMENAK KLASE POLITIKOARI.**

Proposamen hauek, azken hiru urteotan BAIETZ BASAURI plataformak Basauriko auzokideekin batera burututako lan, jarduera, hitzaldi, eztabaida, ekimen eta hainbat dinamika desberdinen emaitza dira. Basauriar guztion ordezkari izan nahi dutenek onartu beharreko gutxieneko eskariak dira gure ustetan. Desberdintasun sozialak txikitzeko asmoz eta bidezkoagoa den gizarte bat eraiki nahian egindako proposamenak dira.

Proposamen hauek arlo desberdinetan banatu ditugu:

### **ETXEBIZITZA ARLOA:**

- Basaurin hutsik dauden etxebizitzaren kontserbazio-egoera, ekipamendua, okupazio maila eta bestelako ezaugarriak biltzen dituen errolda eguneratua beharrezkoa da. Era berean, etxebizitzaren merkatuaren azterketa ezinbestekotzat jotzen dugu. Bertan, benetako etxebizitza eskaria eta biztanleen ezaugarri soziologikoak eta eroste ahalmena agertu beharko lirateke. Honela, etxebizitza politika gardena eta errealitatean oinarritutakoa bultzatu ahal izango dugu; arlo ekonomikoan eta ingurugiroaren ikuspuntutik jasangarriak diren formulak sustatuko ditugu eta espekulaziotik aldentuko gara.
- Politika honek, alokairu sozialerako plan bat garatzea ekarriko luke. Plan honen kudeaketa zuzen eta egokiaren ardura udalarena izango litzateke.
- Hirigintza arloan, adostasun soziala berreskuratu eta etxebizitzaren eta eraikinen zaharberritzea lehenetsiko duen hirigintza plana lortu beharko genuke. Lurzati eraikigarriak berreskuratu eta auzokideen bizitza kalitatea hobetuko duten lursailak egokitu behar ditugu. Plan honek ez du inola ere, higiezinaren salerosketaren ondorioz udaletxearen gainzorpetzea ekarriko.
- Etxe-kaleratzearen errealitate isilaren aurrean, orain dela urte bete luze onartutako mozioa beteko den bermea beharrezkoa da. Bestek beste, honako neurriak onartu ziren:
  - ✓ Basauriko udalak ez du bultzatuko eta ez du parte hartuko etxe-kaleratze prozeduretan. Honez gain, etxe-kaleratzeetan parte



hartzen ez duten udal langileak defendatuko ditu. Hiritarrok etxebizitza izateko dugun eskubidea bermatu ahal izateko, Basaurin bulegoa duten finantza erakunde guztiei ohiko etxebizitzetako kaleratze prozesu guztiak eten ditzatela eskatuko zaie, etxebizitza jabetzan zein alokairuan izan. Horretarako, Basauriko udalak finantza erakunde guztiakin dituen lankidetzeta eta harreman ekonomiko zein instituzionalak berrikusiko ditu etxe-kaleratzeen inguruan hartzen dituzten erabakien arabera.

- ✓ Bankuen esku eta hipoteka-exekuzio zain dauden etxebizitzak, herri mailan alokairu sozialetarako erabiliko den poltsa batean sartzeko eskatuko du udalak.
- ✓ Etxe-kaleratzeen ondorioz hutsik dauden etxebizitzak ez erosteko kontzientziazioa sustatuko du Basauriko udalak eta aipatu etxebizitzen errolda egingo du. Ordenantza baten bidez, etxebizitza hauen salerosketa egitean etxe-kaleratze baten ondorioz hutsik daudela jakinarazi beharko zaio biztanleriari kartelen bidez.
- ✓ Udalak euren etxeetatik kaleratuak izan diren pertsonak edota kaleratuak izango diren mehatxupearan daudenak informatu, lagundu eta babestuko ditu eta beharrezkoa duten aholkularitza emango die. Etxe-kaleratzeak etetea izango da helburua. Aldi berean, Gizarte Ongizate arloak kudeatzen dituen Gizarte Laguntzak handituko ditu udalak. Presazko laguntzak sortuko dituzte euren ohiko etxebizitzatik kaleratuak izan daitezkeen familiak babesteko eta laguntza hauetarako zenbatekoa behar beste handituko du udalak.

## ENPLEGUA:

- Zerbitzu publikoen pribatizazioa geldiarazi eta gaur egun indarrean dauden kontratuak amaitzen direnerako errebertsio plan bat egin, orain pribatizatuta dauden zerbitzuen publikazioa lortzeko asmoz. Hainbat udaletxetan, zerbitzu horien (kale garbiketa, lorezaintza, zarama bilketa, zaintza zerbitzuen,...) benetako kostuz eta berauen errebertsioaren inguruko azterketak egiten ari dira eta dirua aurrezten dela argi ikusten ari dira.
- Azpikontratak dauden bitartean, langile horien lan baldintzak berbatu behar dira. Indarrean dauden lan hitzarmenak, kasu honetan Bizkaiko sektoreetakoak, bete daitezela eskatu behar dugu azpikontraten lizitazioetan, modu honetan zerbitzu hauetako lan baldintzen prekarietatea saihestu nahi dugu.



- Enplegu publikoaren sorrera sustatuko dugu. Honetarako, astean 35 orduko lan jarduna ezarri, lan banaketa sustatu eta enpleguaren kalitatea bultzatuko ditugu.
- Lan Erreforma baztertuko dugu eta langile guztien eskubideak bermatuko ditugu.

## **BABES SOZIALA:**

- Egin diren laguntza eskari guztien urteroko txostena egin beharra dago. Txosten honetan onartutako eta ez onartutako laguntza motak eta arrazoiak, zenbatekoak, eta iraunaldiak adieraziko dira.
- Udaletxean ordezkaritza duten alderdi guztiekin eta errealitatea ezagutzen duten eragile sozialekin batera batzorde bat eratuko da. Bertan, beharrezana dutenei ahalik eta babes handiena eman nahian, baldintzak ez betetzeagatik onartu ez diren eskariak aztertu eta ordenantzetan dauden akatsak topatuko dira.
- Eusko Jaurlaritzak ematen duen Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (GDBE) eta udaletxearen laguntza osagarria nahikoak ez direla urtero-urtero ikusten dugu. Gauzak horrela, premia larriak dituzten auzokideei lagundu ahal izateko udaletxearen diru kopurua handitu beharra dago.
- OIAC-n gizarte-laguntzaile bat ipini beharra dago. Honek, gai hauen inguruan informazioa eskatzen duten guztiei informazio eta dokumentazio osoa emango die. Gaur egun dauden Laguntza Sozial( GDBE, osagarriak, GLL eta ANPM) desberdinen berri postontzietan (zuzenean edo doako egunkarien bidez) emango zaie herritar guztiei.
- Kale gorrian bizi diren pertsonen erroldatzea erraztu beharra dago, edozein laguntza eskari egin ahal izateko alde zuzeneko eta ezinbesteko urratsa baita erroldan agertzea.
- Aterpetxe eta gizarte jantoki baten beharra ikusten dugu gure herrian, beharrezan handiak dituzten gero eta familia gehiagori erantzun egokia eman behar zaie eta. Orain arte, GKE-en borondatezko lanari esker eman zaie erantzuna familia hauei.

## **GURE AUZOETAKO DENDARI ETA OSTALARI TXIKIEN DEFENTSAN:**



- Lehia desleiala saihestu eta sektore horretako langileen familia bateragarritasuna bermatuko duen ordutegi komertzialen errespetua bermatuko duen ordenantza berri bat egin beharra dago.

